# EDITORIAL

## *LEHENDAKARI BATEN BILA*

*Beti horrela izan behar zuelakoan geunden. Lau urtetik behin, hutsik egin gabe, probidentziak martiri espiritudun aingeru salbatzaile bat bidali behar zigula, EHME-ko lehendakari izateko iruditzen zitzaigun, eta dena bide onetik joan zedin. Bainan hara hemen uste genuen egoera gordina. Juan Bautista Maizek eta bere taldeak lehendakaritzari utzi ziotenez geroz badira beteak bi deialdi, eta oraindik ez da inor azaldu, euskal mendizale bakoitzari dagozkion erantzunbeharrak leporatzeko moduko salbatzailerik.*

*Arazoa —bakarrik gertatzen ez denez—, orduan eta kezkagarriagoa zaigu. Gero eta zailago da zuzendaritza karguak betetzea eta hau ez EHME-n bakarrik, gauza bera bait dugu elkarte bakoitzean ere. Eginbeharrekoak egiteak eta besteenganako ahaidetasunak ematen duten poza ez dirudi gaur egun ordaina nakikoa denik inor ekarri erazteko. Borondatezko lanak egiten garaia bukatzeko itxura hartzen ari da. Badirudi beraien lan guztiaren truke atsekabeak baino hartzen ez zutenen belaunaldia agertzeko zorian dagoela.*

*Hara nola gertatu den oraingo hutsune hau gure Elkartean, eta oraintxe, honako momentu larri honetan, EHME eta lurralde ordezkaritzen lege nortasuna lortzeko bidean gauden garaian. Aldez aurretik pentsatutako eta erritmo egokiak zituen prozesu honek, orain alda beharrean gerta daitekeena, bertan lan egiten ez bada. Ordaindutako administratzaile batek eta ezta ere behin behineko gestiorako dagoen batzorde batek egin ez dezaketen prozesua dugu hau.*

*Beharrezkoak dira, derrigorrez, lehendakari bat eta zuzendaritzarako talde bat, bestela gure mendizaletasunaren antolaketa burokratikoa gelditu daiteke, berriro abiatzeko lan handiak dituela, eta gainera horrekin batera bere izatea arriskuan jarriaz.*

*Egoera guzti honen jabe gara euskal mendizale guztiok. Kontua da, guk ez daukagula, Errege Maguek bezala gure salbatzoilearen estalperaino eramango gaituen izar bat, eta hori asko ez dela gainera horrez gain ez dakigu jaioa baden ere.*

## SE BUSCA PRESIDENTE

Parecía que siempre iba a ser así. Que cada cuatro años la providencia iba a enviarnos un ángel salvador que se hiciera cargo con espíritu de mártir de la presidencia de la EHME, y todo continuaría sobre ruedas. Pero he aquí que de repente se presenta la cruda realidad. Tras el cese de Juan Bautista Maiz y su equipo se han cumplido ya dos convocatorias y sigue sin aparecer ningún redentor sobre el que descargar la responsabilidad que corresponde a todos y cada uno de los montañeros vascos.

El problema es tanto más preocupante, por cuanto no se trata de un hecho aislado. Cada vez resulta más difícil cubrir los cargos directivos, no ya de la EHME, sino de los propios clubs. La satisfacción del deber cumplido y del servicio a los demás parece que ya no es recompensa suficiente para animar a nadie. La época de los trabajos desinteresados parece que está tocando a su fin. La especie de los que lo daban todo a cambio, no de nada, sino en la mayor parte de los casos, de bastantes disgustos, parece que se extingue.

Y así se produce este vacío de poder en la Federación en un momento especialmente delicado, en el que está en marcha el proceso de consecución de personalidad jurídica para la EHME y las delegaciones territoriales. Un proceso que tenía previsto un cauce y un ritmo, que ahora se puede ver alterado si no se sigue trabajando en él. Un proceso que no lo puede llevar adelante un administrador a sueldo o una junta de gestión provisional.

Hace falta, de forma inexcusable, un presidente y un equipo directivo, porque se está corriendo el riesgo cierto de que toda la maquinaria burocrática de nuestro montañismo sufra un parón del que le cueste mucho recuperarse e, incluso, pueda poner en riesgo su existencia.

De toda esta situación somos conscientes todos los montañeros vascos. El problema es que nosotros no tenemos, como los Reyes Magos, una estrella que nos guíe hasta el portal de nuestro salvador y, además, ni siquiera sabemos si ha nacido.